Empezamos con el EUSKARALDIA en noviembre. Desde el 23 de noviembre hasta el 3 de diciembre estuvimos inmersos en los "belarri prest" y "ahobizi" para fortalecer también nuestro euskera. El objetivo era traer el uso del euskera a los espacios sociales.

Esta actividad social tuvo bastante buena acogida entre los alumnos y las alumnas de Bachillerato.

Ello nos animó a hacer frente a la propuesta EUSLE. La metodología EUSLE es un ejercicio para crear el hábito de hablar en euskera en las relaciones del día a día. Los participantes adquieren el compromiso de hablar en euskera cuando están juntos. Este ejercicio se hace en grupos pequeños. Esos serán los que van a sostener el euskera, por ello, serán "Eusleak" (los que sostienen) el euskera. El grupo que sostiene decide la duración de ese ejercicio y es quien dice hasta cuándo quieren alargar el ensayo.

FAMILIENAK



ZUBIA PASTORALA HERRI ANTZERKIA PORTUGALETEKO HERRITARREN EKIMEN KULTURALA



ABENDUAREN 16AN IZAN ZEN, PORTUGALETEN, ZUBI ALDE KIROLDEGIA JARRILLEROZ BETE-BETERIK ZEGOELA. EGUN ETA ORDU HORRETAN IKUSI ZUEN ARGIA BI URTE LEHENAGO HERRIKO LAGUNTALDE BATEK IZANDAKO AMETSA: PORTUGALETEN PASTORALA EGITEA! HASIERAN HIRU TXOROREN IDEIA ZIRUDIENAREKIN HIRUREHUN HERRITARREK BAINO GEHIAGOK EGIN ZUTEN BAT ETA GUZTIEN ARTEAN ONDU ZUTEN ZUBIA IZENENKO HERRI ANTZERKIA.

Antolatzaileek "pastorala" deitu zioten hasieran bere proiektuari, aho txikiarekin, jakitun ez zituela pastoral klasikoaren ezaugarri guztiak betetzen, nahiz eta keinu ugari egin: pertsonaia kontrajarriak, bertso-moldeak, etab. Azken batean, omenaldia egin nahi izan diote pastoralari, herri antzerkiaren bidez. Pastorala izan zein ez izan, bazuen elementu ezohikoa: protagonista nagusia Bizkaiako Zubia izan zen, 2018an 125 urte bete zituen zubia, eta 125 urte horietan ikusitakoa kontatuko zuena.

Halaber, antzezlanak izaera herritarra izan zuen hasieratik bertatik, bere sorkuntzan, antolaketan eta garapean: herriitik, herriarentzako, herriak onduetako lana. Izan dute, hori bai, profesionalen laguntza: alde batetik, herriko musika-bandaren zuzendari Jabier Ituarte; bestetik, Iñaki Aurrekoetxea bertsolaria. Beraien ekarpenarekin batera, ezinbestekoa izan da hiru zuzendari artistikoen lana, hirurak herriko dantza talde batzuetako dantza maisu-maistrak: Eneritz Mancisidor, Iker Gil eta Luis Miguel Aretxaga. Baina, gauza guztien gaineratik, herriko nor-

FAMILIAS



banakoen lana: dantzan, kantuan, musikari edo aktore lanetan. Horien artean azpimarratzekoa Bizkaia Zubiaren rola bete duen Nahikari Yubero. Beste batzuek lan anonimoa, ezkutukoa eta ixila bete dute: jantzigintzan, atrezzoan edota antolakuntzan.

Esan bezala, bi urte luzeko lana izan da Herri Antzerkia gauzatzearena, eta asko izan dira horretan lagundu dutenak: herriko elkarte eta enpresa askok diruz eta azpiegituraz lagundu zuten. Elkarte kulturalak arropa eta atrezzo-rako materialaz gain, euren lokalak entsegu-gune bihurtu zituzten, bai eta Asti Leku Ikastolak ere, entsegu orokorretarako tokia bermatu baitzuen. Azken batean, Portugaleten sare xumea eraiki genuen, bakoitzak bere ekarpen txikia egin zuen herriarentzako hain handia den Bizkaia Zubiari omenaldia egiteko, eta, noski, jarrillero guztiak eta 125 urte hauetan bizitako momentuei ere bai. Hiru zorok izan zuten amets horrek muga guztiak gainditu zituen.



TEATRO POPULAR PASTORAL ZUBIA INICIATIVA CULTURAL DE LOS VECINOS DE PORTUGALETE

FUE EL 16 DE DICIEMBRE, EN PORTUGALETE, CON EL POLIDEPORTIVO ZUBI ALDE LLENO DE JARRILLEROS. ESE DÍA Y A ESA HORA VIO LA LUZ EL SUEÑO QUE DOS AÑOS ANTES TUVO UN GRUPO DE AMIGOS Y AMIGAS DEL PUEBLO: ¡HACER UNA PASTORAL EN PORTUGALETE! A LO QUE PARECÍA UNA IDEA DE TRES LOCOS SE UNIERON MÁS DE TRESCIENTOS VECINOS Y VECINAS, Y ENTRE TODOS MADURARON LA OBRA DE TEATRO POPULAR DENOMINADA ZUBIA.

El del Teatro Popular ha sido un trabajo de dos largos años, y han sido muchas las personas que han ayudado: muchas asociaciones y empresas ayudaron con dinero e infraestructuras. Las asociaciones culturales, además de con ropa y material para el atrezzo, cedieron sus locales como lugares de ensayo. También la ikastola Asti Leku, que nos garantizó un lugar para los ensayos generales. Finalmente, construimos en Portugaleta una modesta red, cada uno y cada una con su pequeña aportación para homenajear al Puente Bizkaia, que es tan grande para el pueblo, y por supuesto, también a todos los jarrilleros y jarrilleras y los momentos vividos durante estos 125 años. Ese sueño de tres locos superó todas las barreras.

ESKOLAZ KANPOKOAK

XAKEA KIROLAZ HARATAGO

ZER DA XAKEA? ZEINTZUK DIRA BERE ONURAK? EDONORK IKAS DEZAKE XAKEA EDO GAITASUN BEREZIRIK BEHAR DA? NOLA GARATZEN DA XAKE SAIO BAT IKASTOLAN? ZEIN DA TXAPELKETEN FUNTZIONAMENDUA? ASKO DIRA XAKEAREN INGURUAN SOR DAKIZKIGUKEN GALDERAK. HAUEK ETA BESTE BATZUK ERANTZUTEN SAIATUKO GARA JUAN RUIZ ETA IBON BARRIO ASTI LEKUKO XAKE IRAKASLEEN LAGUNTZAREKIN.

Xakea haurrentzako interes handiko jarduera da, garapenerako garrantzi handiko trebetasunak indartzen dituen: abilezia mental eta kognitiboak, kontzentrazio gaitasuna, orimena, arrazobide logikoa eta erabakiak hartzeko gaitasuna, besteak beste. Gainera, beste kirol batzuetan bezala arrakastaren eta porrotaren kudeaketa, trebetasun sozialak, araudi eta aurkariarekiko begirunea, gizartrate eta berdintasunaren balioak ere lantzen dira adibidez. Ondorio hauek pedagogiaren munduarekin harremana daukaten erakunde askok aitortzen dituzte eta horregatik, gaur egun herrialde askotan irakasgai bilakatu da xakea.

Hau guztia dela eta, hazkunde izugarria izaten ari da xakea azken urteotan. Gero eta jokalarari gehiago dago eta txapelketak edonoiz eta edonon topa daitezke. Gainera, oso ekintza merkea da eta ordenagailuen eta interneten bidez oso erraz ikasi eta joki daiteke.

Xakea duela hiru urte heldu zen ikastolara. Lehenengo urtetik oso harrera ona izan zuen eta 2016-2017 ikasturtean 15 ikasle inguru parte hartu zuten eskolaz kanpoko ekintza honetan. Egun 30 ikasle baino gehiago daude ostiralero xakeaz gozatzen. Umeak adinaren arabera bi taldetan bananduta daude eta hauekin batera bi irakasle: Juan Ruiz eta Ibon Barrio. Biek argi daukate ekintzaren xedea zein den: "Ondo pasatzea. Xakea oso joko dibertigarria da eta hori aprobetxatuz, beste hainbat gaitasun eta balio landu daitezke." Gainera, haien ustetan xakean jokatzeko ez da gaitasun berezirik behar: "Inportanteenak jokoak

gustukoa izatea eta ikasteko gogoia dira. Noski munduko onenek aparteko gaitasunak dituzte, baina hori kirol diziplina guztietan gertatzen da".

Ekintzaren antolatzailea Portugaleteko Xake Eskola da, 1985etik jardunean egon dena. Portugaleteko Xake Taldearen atala da eta bere baliabide guztiak eskura dauka. Horrez gain, Portugaleteko Udalaren babesa ere badauka, DEMUPORSA-ren bitartez.

Noiz hasi zineten xakean, zer zela eta, non...?

IBON: 8 urterekin hasi nintzen kasualitatez xakean jokatzeko. Ni Arrigorriagako naiz eta bertan eskupilotaritzen nintzen. Egun batean eskupilotako lagun batek entrenamenduen ostean xakea zeukala esan zidan, kiroldegiko geletako batean. Probatzea erabaki nuen eta asko gustatu zitzaidan. Geroztik nire bizitzaren atal garrantzitsua bilakatu da xakea.

JUAN: Nire aitak 5 urterekin piezak nola mugitzen ziren irakatsi zidan eta 7 urterekin nire lehenengo txapelketa jokatu nuen.

Azaldu iezaguzue nolako izan den zeuen ibilbidea hasi zinetetik hona.

IBON: Arrigorriagako Endroko Xake Taldean hasi nintzen. Laster Bizkaiko Xake Federakuntzaren teknifikazio klaseetan hartu ninduten eta 12 urterekin, bizileku aldaketa medio, Portugaleteko Xake Taldean eman nuen izena, nire Federakuntzako irakasletako bat bertakoa zelako. Nire lor-



pen handiena Euskadiko txapelak izatea izan zen.

Txikitatik izan dut irakasle bokazioa eta horregatik oso goiz hasi nintzen xake eskolak ematen. Urteetan zehar asko ikasi dut, umeek asko irakatsi didate.

JUAN: Arrasateko klubean hasi nintzen 10 urte inguru nituenean. Zorionez nire adineko eta zaletasun handiko jokalarari pare batzuk zeuden eta horrela segidan hartu nituen klubera joateko eta xakean jokatzeko gogoia. Arrasate, Gipuzkoa eta azkenean Euskadiko txapelketak irabazi nituen, birritan Euskadiko txapelak izanik.

16 urte nituenean Arrasateko klubean txikiei klaseak ematen hasi nintzen gogoko nuelako eta niri irakatsi zidaten guztia hurrengoko belaunaldiari transmititzeko. Bi urte pasa ondoren herria utzi behar izan nuen eta Bilbora mugitu nintzen unibertsitatea hasteko. Gauzak horrela Portugaleteko klubean hasi nintzen jokatzeko eta berriro klaseak ematera bueltatu nintzen.

Nola garatzen da saio bat ikastolan?

IBON: Xake saioak bi zatitan bananduta daude. Zati bakoitzak helburu espezifikoak ditu eta bai teoria bai praktika konbinatzen dira.

Saioan zehar mota askotako ariketak egiten dira: atal teorikoak, edukiak lantzeko fitxak, jokoak bai xakearekin lotutakoak bai memoria edo kontzentrazioa lantzeko gaitasunekin lotutakoak ere, txapelketak...

EXTRAESCOLARES

Xakea ikasteko ez da ezinbestean gela barruan eserita egon behar, batzuetan patiora ere irten izan gara.

Gainera, normalean ezagutzen dugun xakea xake klasikoa da. Baina aldaera pilo daude eta hauek ere klasean lantzen dira. Hurrengan oso erakargarria da "Piezak-pasatzea" esaterako: hauxe bikoteka jokutzen da, eta batek jaten dituen piezak bere kideari pasatzen dizkio berak erabil ditzan. Oso dibertigarria da.

Azaldu ahal diguzue nola dagoen antolatuta txapelketa bat.

JUAN: Suizo deituriko modalitatea erabiltzen da. Sistema honetan 2 puntu daramatzen jokalaria batek 2 dauzkan baten aurka egingo du. Irabazi ezker 3 puntu edukiko ditu eta hurrengoko txandan berak bezala 3 puntu dituen jokalaria baten aurka egingo du. Txapelketa irabazteko puntu asko daramatzaten aurkariaren kontra egin beharko da eta honela txapelketako onena nor den ikus daiteke.

Ikastolatik kanpora eramaten dituzue ikasleak inoiz?

IBON: Bai, xakeak txapelketa ugari ditu eta ikastolako ikasleekin askotan parte hartzen dugu: hasteko, abenduan Portugaleteko Gabonetako Txapelketa jokatzeko dugu. Gainera, beste kirolekin bezala, esko-

larteko txapelketetan ere aritzen gara. DBHko ikasleek Bizkaiko liga federatua jokatzeko aukera dute Portugaleteko Xake Taldearekin. Aurten esaterako 4 ikasle animatu dira. Txapelketa honen berezitasunak ikasleek adin guzietako aurkariak topa ditzaketela eta partida bakarrak 3-4 orduko iraupena izan dezakeela dira. Horrez gain, hileko azken ostiralean PANDOn adiskidantza txapelketak antolatzen ditu Portugaleteko Taldeak herriko xake zale guztiak elkartzeko eta hauek ere Asti-Lekuko ikasleak izaten dira.

Hala ere, txapelketa guztiak hautazkoak dira eta beraz ikasleek daukaten gogoaren arabera parte hartzea edo ez erabakitzen dute. Guk animatzen ditugu baina euren erabakia da.

Azalduko diguzue zelan dagoen antolatuta eskola kiroleko txapelketa? Datak, helburuak, funtzionamendua...

JUAN: Aurten bi zona egon dira ikastolaren edo klubaren arabera antolatuta. Zona bakoitzean 3 txapelketa jokatu dira urtariletik martxora bitartean 3 igande goizetan. Txapelketa horietatik onenak finalera sailkatzen dira.

IBON: Eskola kiroleko txapelketa hauen helburuak klasean ikasitakoa praktikatzeko, kirol-ohitura sortzeko eta bereziki ondo pasatzeko dira.

IBON BARRIO, JUAN RUIZ ETA CRISTINA ROY



AJEDREZ MÁS QUE UN DEPORTE



El ajedrez es una actividad muy interesante para los niños y niñas, y refuerza habilidades importantes para el desarrollo: habilidad mental y cognitiva, capacidad de concentración, memoria, razonamiento lógico y capacidad de toma de decisiones, entre otras. Además, al igual que en otros deportes, también se trabajan la gestión del éxito y el fracaso, las habilidades sociales, el respeto por las normas y el oponente, y valores de socialización e igualdad, entre otros. Estos resultados los avalan muchas organizaciones relacionadas con el mundo de la pedagogía, y por ello, hoy en día el ajedrez se ha convertido en asignatura en muchos países.

El ajedrez llegó a la ikastola hace tres años. Desde el primer año tuvo una gran aceptación, y fueron 15 los alumnos que en el curso 2016-2017 tomaron parte en esta actividad extraescolar. A día de hoy son más de 30 los alumnos que disfrutan con el ajedrez todos los viernes. Los alumnos están divididos en dos grupos por edades, y con ellos dos profesores: Juan Ruiz e Ibon Barrio. Ambos tienen claro cuál es el objetivo de la actividad: "Pasarlo bien. El ajedrez es divertido y aprovechándonos de ello pueden trabajarse diferentes capacidades y valores". Además, piensan que no hace falta gozar de habilidades especiales para jugar al ajedrez: "Lo más importante es que les guste el juego y tengan ganas de aprender. Está claro que los mejores del mundo cuentan con habilidades especiales, pero eso ocurre en todas las disciplinas deportivas".

IKASTOLA



HEZKIDETZA TALDEA

IKASTOLA ERE HEZKIDETZAREN ETA BERDINTASUNAREN OLATUAK BULTZATUTA

2019KO MARTXOAREN 6AN ETA 7AN "ESKOLA ABIAN: INKLUSIOAREN ETA BERDINTASUNAREN BIDEAN" IZENBURUPEAN BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN BURUTU DIREN JARDUNALDIETAN, HEZKUNTZA SAILAK GARATU BERRI DUEN EAEKO HEZKUNTZA SISTEMARAKO PLANA AURKEZTU ZUTEN, II. HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN (2019-2023) IZENA DUENA.

Plana martxan jartzeko arrazioen artean, besteak beste, honako hau aipatzen da: heziketa-sistema sozializazio-agente adierazgarrienetako bat da eta mekanismo bat bezala erabili behar dugu emakumeen eta gizonen parekidetasunean aurrera egiteko.

Zentzu honetan, ume eta gazteekin lan egiten dugunok jakin badakigu **hezkuntza** sozializatorako ezinbesteko bitartekoa dela, eta jendaratean dauden ereduak birsortzeko baino, **eraldaketarako tresnatzat** jotzen dugu gure lana. Horrez gain, argi daukagu azken hamarkadetan hezkuntza-sisteman aurrerapen handiak eman direla, baina, hala ere, uste dugu ez dugula lortu benetakoa den eskola hezkidetzaila garatzea.

Asti Leku Ikastolan, orain arte arlo honetan burututako lana sentsibilizazio kanpaina eta ekintza puntualetan oinarritu da. Aurtengo ikasturtean **hezkuntzarekiko** eta, bereziki, **pedagogia feministarekiko** daukagun konpromisoa adierazi nahi dugu, praktika hezkidetzaila **modu sistematikoa eta estrategikoan ezartzeko**, lankidetzaz zein elkarlana abiapuntutzat hartuta. Hezkuntza komunitatea osatzen dugunok lan horretan gabiltza eta, honen harira, ezinbestekotzat jotzen dugu irakasleoi, familiei, hezitzaileei, etab. -hau da, ikastola osatzen dugunoi- beharrezkoak ditugun **formakuntza programak** eskain-

itzea, beharrezkoa dugun hausnarketa, eztabaida eta praktika sustatzeko.

Helburua gure ikasleen aniztasunari (generoa, jatorria, gaitasunak, maila sozioekonomikoa...) **erantzuteko baliabide hobeak eta ugariagoak** eskuratzea da, pertsonen garapen osoa lortzeko; pertsona askeak, autonomoak eta integralak sortzeko, alegia. Gure gazteek askatasunean eta beldur barik harremanak sortzen, maitatzen zein euren emozioak adierazten ikasi behar dute, bizitzan ezberdintasunak sorrarazten dituzten faktorerik gabe, modu aske eta osasuntsuan jardun ahal izateko oinarritzko konpetentzia baita. Horretarako, **genero ikuspuntua duen sexu eta afektibitate heziketa** ezinbestekotzat jotzen dugu etapa guztietan, **Tutoretza eta Orientazio Plana oinarri**.

Izan ere, egunero hezkidetzan hezi ahal izateko giro afektiboak eta egonkorak lortu nahi ditugu, eta jendarteak hori lortu ahal izateko planteatzen dizkigun erronketan uneoro begirada finkatu. Azken finean, egun, **ikastola hezkidetzaila** lortzeko bidea hori baino ez da: guztiok batera, elkartasunez, geure inguruan mozorroturik dirauten ezberdintasunekin bukatzeko, berdintasunean oinarritutako hezkuntza ahalbidetuko duen argi izpian sinestea eta horrengatik borrokatzea.



EL 6 Y EL 7 DE MARZO DEL 2019, EN LAS JORNADAS REALIZADAS EN EL PALACIO EUSKALDUNA BAJO EL NOMBRE DE "LA ESCUELA EN MARCHA: CAMINO A LA INCLUSIÓN Y LA IGUALDAD" SE PRESENTÓ EL NUEVO PLAN ELABORADO POR EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DE LA CAV DENOMINADO PLAN DE COEDUCACIÓN II, CAMINO A LA IGUALDAD Y AL BUEN TRATO (2019-2023).

En la Ikastola Asti Leku, todo lo que se ha trabajado hasta ahora en esta área se ha basado en campañas de sensibilización y actividades puntuales. Este curso queremos mostrar nuestro **compromiso** con la **educación** y especialmente con la **pedagogía feminista**, para establecer la práctica coeducativa de **forma sistemática y estratégica**, tomando como punto de partida el trabajo en equipo y la cooperación. Los y las que formamos la comunidad educativa trabajamos en ello, y por lo tanto, creemos de vital importancia ofrecer **programas formativos** para profesores, familias, educadores, etc., para fomentar las reflexiones, debates y prácticas necesarias.



IKASLEENAK

NAGORE, ANE ETA UXUEREKIN ABIA MUNDURAZ SOLASEAN

*ABIA MUNDURA GAZTEEN ARTEAN
ELKARTASUNA ETA BOLUNTARIOTZA
SUSTATZEKO PROIEKTUA DA ETA
BERTAN PARTE HARTZEN ARI DIREN
ASTI LEKUKO HIRU IKASLEREKIN HITZ
EGIN DUGU PROIEKTUA ZERTAN
DATZAN HOBETO EZAGUTZEKO.*

Troconiz Santa Coloma Fundazioak, Asti Leku ikastolak eta Portugaleteko Udalak 1997. urtetik aurrera esparru formaletan nahiz ez formaletan dihardute elkarlanean herriko eskolekin, gazteei begirako ekimenak sustatzen.

2014. urtean, gazteen artean Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren metodologiaren bitartez elkartasuna eta bolun-

tariotza bultzatzeko helburuaz, ABIA MUNDURA proiektua jarri zuten abian.

Proiektua sortu zenetik hona zenbait egokitzapen izan ditu hobetze aldera eta ikasturte honetan, estreinako aldiz, aurreko urteko taldeak jarraitzeko aukera izan du. Horretan dabilta Asti Lekuko Ane Muñoz eta Ainhoa Ramírez; batxilergoko 2. mailako ikasle hauek pasa den ikasturtean hasi eta oraingoan jarraitzen dute, bi partaide berri ekarri dituztelarik, Nagore Santos eta Uxue Hidalgo, hain zuzen.

ELKARRIZKETA

“BEHARTUTA DAGOEN JENDEARI LAGUNTZEAZ GAIN ZEURE BURUARI ERE LAGUNTZEN DIOZU, BIZITZA OSOAN BALIATUKO ZAIZKIZUN ZENBAIT GAUZA ABERASGARRI IKASTEN DITUZU ETA”

Zer da Abia Mundura? Zelan azalduko zenioke zeren proiektu hau ezer ez dakien bati?

Ikasleak: Gazte-jendeari -adin txikikoak barne- behartuta dauden pertsoneri laguntzeko aukera ematen dion proiektua da. Guretzat oso interesgarria da adingabeek oso aukera gutxi daukagulako boluntariotza lanetan aritzeko; Abia Mundurak, aldiz, esperientzia hori ezagutzea ahalbidetzen digu hainbat ekintza ezberdinetan parte hartuz.



CRISTINA ROY

ALUMNAS Y ALUMNOS

Noiz sartu zineten proiektuan? Zergatik? Nola?

Ikasleak: Ainhoa eta biok pasa den ikasturtean hasi ginen -dio Anek- eta taldearen dinamikak nahiko ondo funtzionatu zuenez gero, aurrekoetan ez bezala, ikasturte honetan talde berberak jarraitzea proposatu ziguten, baina taldekide guztiak norbait berria ekarrita. Bai, hala da -diote Nagore eta Uxue-, gu aurten hasi gara Ainhoak animatu gintuelako. Aurreko ikasturtean berak izandako bizipena azaldu zigun eta asko gustatu zitzaigun. Izan ere guk beti izan dugu gogoko jendeari, ahal dugun neurrian, laguntzea.

Eta zu Ane, nola ezagutu zenuen ekimen hau?

Ane: Bittor Kortabitarte Asti Lekuko orientatzaileak aurkeztu zigun proiektua ikastolan, gelaz gela pasatu; geroago, interesatuok aurkezpen bilera orokor batera eramanez gintuen eta bertan beste ikastetxe batzuetako ikasleekin batu ginen proiektuaren nondik norakoak sakonago ezagutzera. Niri interesgarria iruditu zitzaidan entzundakoa eta izena eman nuen.

Aurten jarraitzea erabaki duzu. Nola baloratzen duzu iazko esperientzia?

Ane: Oso era positiboan. Gainera erraztasunak ematen dizkizute ekintzetan parte hartzerakoan eta lerbide Solidarioaren barruan dauden jardueretatik ongien datozkizunak -bai tokiagatik bai egutegiagatik- hautatu ahal dituzu.

Uxue eta Nagore: Bai, egia da. Horrek asko laguntzen du, normalean nahiko lanpetuta gaudelako ikasketekin.

Nolako ekintzak izaten dira? Jarriko al zenigukete adibiderik?

Ikasleak: Urtarrilaren 29an Abia Mundurak eta Movimiento por la Paz elkarteak Portugaleten bizi diren errefuxiatuen eta herriko jendearen arteko topaketa antolatuz, elkar ezagutu eta norberaren kultura eta ohiturak elkarri jakinarazteko. Oso aberasgarria izan zen.

Elikagaien bankuarekin ere lan egin dugu eta Portugaleteko Errege eguneko Desfilean, besteak beste.

Zer ikasi duzue?

Ikasleak: Gure inguruan oso egoera eta errealitate ezberdinetan bizi diren pertsonak badaudela, hauetako batzuk izugarri latzak izanik.

Honek, gainera, pentsarazten dizu zuri ere inoiz gerta daizukeela, jakin ezin baitugu bizitzak nora eramango gaituen. Eta ez hori bakarrik; izugarri inportantea deritzogu bizipen honek guri irakatsitakoa, pertsona ezberdinak, hobeak, bihurtzen gaituelako eta bizitzako arlo guztietan hobeto jokatzeko baliatuko zaigulako.

Hemendik aurrera, behin proiektua bukatuta, jarraituko al duzue boluntariora lanekin?

Ikasleak: Printzipioz ez daukagu ezer zehatzik pentsatuta, baina gustatuko litzazuke. Ikusi beharko dugu nola moldatzen garen unibertsitateko ikasketekin eta gero joango gara ikusten non eta nola lagundu dezakegun.

Bukatzeke, zerbait gehitu nahi duzue?

Ikasleak: Bai, pare bat gauza. Batetik, gazteak animatu nahi ditugu honelako ekintzetan parte hartzera, esan bezala guztiz aberasgarria delako.

Eta bestetik, boluntariora lana guztiona dela, ez emakumezkoena bakarrik. Oso mutil gutxi ikusi dugu proiektuan eta Asti Lekukooi dagokigunez, guztiak gara neskak.



ABIA MUNDURA ES UN PROYECTO PARA FOMENTAR LA COLABORACIÓN Y EL VOLUNTARIADO EN LOS JOVENES Y HABLAREMOS CON TRES ALUMNAS DE ASTI LEKU QUE PARTICIPAN EN EL PROYECTO, PARA CONOCER MEJOR DE QUÉ TRATA.

La Fundación Trocóniz Santa Coloma, la ikastola Asti Leku y el Ayuntamiento de Portugalete llevan desde 1997, tanto en el ámbito formal como en el no formal trabajando en equipo con las escuelas de pueblo, fomentando acciones para los jóvenes.

En el año 2014, con el objetivo de empujar a los jóvenes a la colaboración y a al voluntariado y mediante la metodología del Estudio y el Servicio Solidario se puso en marcha el proyecto ABIA MUNDURA.

Desde que se creó el proyecto hasta ahora ha tenido varias modificaciones con el objetivo de mejorar, y este curso, por primera vez, ha podido seguir el grupo del año anterior. En ello andan Ane Muñoz y Ainhoa Ramírez de Asti Leku; estas alumnas de segundo de bachiller que empezaron el año pasado continúan en la actualidad. Y, como era condición, cada una ha traído una nueva participante, concretamente, Nagore Santos y Uxue Hidalgo.

GURASO GUNEA

“GURASO GUNEA” ASTI LEKUKO FAMILIENTZAKO TOPALEKUA

“GURASO GUNEA, MODU ERABAT BORONDATEZKOAN, UMEAK ETA FAMILIAK ERLAZIONATZEKO JARDUERAK AURRERA ERAMAN GURA DITUGUN IKASTOLAKO GURASO TALDEA GARA, EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO AHALEGINA EGINEZ, EZ IKASTOLA BARRUAN BAKARRIK, BAITA KANPOAN ERE”.



Ziurrenez zuetariko askok entzungo zenuten zer edo zer Ikastolako GURASO GUNEARI buruz. Gaur bere historiari buruzko zerbait kontatu gura dizuegu, hobeto ezagutu gaitzazuen.

Gure seme-alabak ikastolan hasi baino askoz lehenago bazegoen GURASO GUNE bat, beste guraso talde batek osatutakoa; eta, modu naturalean, erreibua eman die-te taldeko oraingo kideei, haieiako askok dagoeneko ez baitute seme-alabarik Ikastolan. Horregatik, guraso gehiago elkartzeko beti irekita dagoen taldea da, taldeari jarraipena emateko, ideia berriak aurkezteko eta, horrela, kide gehiago izango dituen taldea lortzeko.

Aurreko ikasturtera arte, ostiral arratsaldeetan esku-lan eta zientzia tailerrak eta ikerketa-jolasen bat antolatzen genituen, eta baita irteeraren bat elurretara ere. Eta, egia esan, oso ondo pasatu dugu umeekin.

Ikasturte honetan, berriz, jarduerak ikastolatik kanpo egiteko apustua egin gura dugu, horrela balio handiagoa eman ahal izateko familiari, aisiari eta euskarari. Dinamika, orain arte egindakoaren guztiz desberdina da, baina askoz ere atsegina, jarduerak familia osoarekin egin daitezkeelako.

Orain arte antolatutako jardueretako batzuk hauek izan dira:

- “La Berrea” entzuteko irteera.
- Bisita gidatua Muñatoneseko Gaztelura; bertan, gazteluaren eta bertako familien historia azaldu ziguten.
- Bisita La Encartada txapel lantegira eta bertako Jacquar ehundegira.
- Serantesera igoera, Olentzerori gutuna uzteko.

Eta aurrerantzean, gauzatu daitezkeen askoz ere ideia gehiago ditugu gure burutxoetan:

- Arkeologo baten lana ezagutzeko eta indusketa batean parte hartzeko tailerra.
- Irteera elurretara (eguraldiaren arabera). Egun atsegina igarotzea elurretan, trineo lasterketak eta elur panpinak eginez.
- Irteera Omako Basora. Giro naturalaz gozatzea.
- ...

Gure helburua DIBERTITZEA da, beste mota bateko eguna igarotzea, leku berriak ezagutzeko, ikastolako beste familia batzuekin erlazioatzea eta, ahal den neurrian, euskararen erabileran gure hondar alea jartzea, bakoitzak ahal duen bezala.

Gurekin parte hartzera gonbidatzen zaituztegu eta, gura baduzue, gure taldeko kide bilakatzea, edo, beste barik, interesgarri iruditzen zaizkizuen jarduerak planteatzera.

Beti aurkitu ahal izango gaituzue talleresastileku@gmail.com helbidean.

FAMILIAS



"GURASO GUNEA SOMOS UN GRUPO DE AITAS Y AMAS DE LA IKASTOLA, QUE DE MANERA TOTALMENTE VOLUNTARIA, INTENTAMOS HACER ACTIVIDADES DONDE LOS NIÑOS, NIÑAS Y LA FAMILIA EN SÍ SE RELACIONEN, INTENTANDO FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA NO SOLO DENTRO DE LA IKASTOLA, SINO FUERA DE ELLA TAMBIÉN".

Este curso queremos hacer una apuesta por realizar actividades fuera de la ikastola, y de esta manera poder dar más valor a la familia, el ocio y el euskera. La dinámica es totalmente diferente a lo realizado hasta ahora, pero mucho más gratificante, ya que puedes hacer una actividad con toda la familia.

Algunas de las actividades organizadas hasta el momento han sido:

- Salida para escuchar La Berrea.
- Visita guiada al Castillo de Muñatones, donde nos explicaron su historia y la de sus familias.
- Visita a la fábrica de boinas La Encartada, y a su Telar Jacquar.
- Subida al Serantes para dejar la carta al Olentzero.


Nuestro objetivo es DIVERTIRNOS, pasar un día diferente, conocer nuevos lugares, relacionarnos con otras familias de la ikastola, y en la medida de lo posible aportar nuestro granito de arena en la utilización del euskera, cada uno como pueda.

Os animamos a participar con nosotros, incluso si os apeetece a que forméis parte de nuestro grupo, o simplemente a plantear actividades que os parezcan interesantes.

Siempre nos podéis localizar en:
talleresastileku@gmail.com



JOLASAK



DENBORA-PASAK ZURE EUSKARA MAILA HOBETZEN




ALDIZKARIAREN ATAL HONETAN ERA LUDIKOAN ETA ENTRETENIGARRIAN ZURE EUSKARA MAILA HOBETZEN LAGUNTZEN SAIATUKO GARA. HORRETARAKO EUSKARA LANTZEKO INTERNETEN DAUDEN JOLASAK, HITZ JOKOAK, ESAMOLDEAK... HONA EKARRIKO DITUGU ZUEKIN PARTEKATZEKO.

ONLINE JOKOAK

-  [bilatubi](#)
-  [urkatua](#)
-  [garraiolaria](#)

BATZUETAN NAGUSIEI ZUZENDUTAKOAK IZANGO DIRA ETA BESTE BATZUETAN FAMILIA OSOA ELKARREKIN JOLAS DADIN.





EN ESTA SECCIÓN DE LA REVISTA INTENTAREMOS AYUDARTE A MEJORAR TU NIVEL DE EUSKERA DE UNA MANERA LÚDICA Y DIVERTIDA. PARA ELLO TRAEREMOS AQUÍ ENLACES DE JUEGOS, PASATIEMPOS, REFRANES... DISPONIBLES EN INTERNET PARA COMPARTIRLOS CONTIGO.

HABRÁ PARA TODAS LAS EDADES Y NIVELES DE EUSKERA Y PARA QUE PODÁIS DISFRUTARLOS EN FAMILIA.

EUSKERA MAILA HOBETU NAHI DUTENENTZAT

Euskera maila hobetu nahi dutenentzat aurreko alean bezala, Euskaljakintzak eskaitzen dituen jokoetatik bat ekarri dizuegu oraingo honetarako, ortografia lantzekoa, hain zuzen ere.

9

10

11

12

13

14

15

16



IKASTOLA KOOPERATIBA

IKASTOLA

Grumete Diego 19
48920 Portugalete

HAUR ESKOLA

Miguel de Unamuno 33-35
48920 Portugalete

944 937 020

www.astileku.eus
astileku@ikastola.eus

